



LAN ETA JUSTIZIA

SAILA

Lan eta Gizarte Segurantzza

Sailburuordetza

Lan eta Gizarte Segurantzza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO

Y JUSTICIA

Viceconsejería de Trabajo y

Seguridad Social

Dirección de Trabajo y Seguridad Social

EBAZPENA, 2020ko uztailaren 14koa, Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurreko agerraldian jartzen baita enpresaburuen elkarteei eta sindikatuari lotutako pertsonen kualifikazioa hotzeko, euren jardueretan berezko zaizkien gaietan prestakuntza planak garatzeko helburuarekin ematen diren dirulaguntzen esleipena arautzen duen Dekretuaren proiektua

Lan eta Justizia Sailak enpresaburuen elkarteei eta sindikatuari lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko euren jardueretan berezko zaizkien gaietan prestakuntza planak garatzeko helburuarekin ematen diren dirulaguntzen esleipena arautzeko Dekretu proiektu bat egin du, zeina abenduaren 22ko 8/2003 Legean, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedurari buruzkoan, aurreikusitakoari jarraiki izapidetu behar den.

Aipatu 8/2003 Legeak bere 8.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, hiritarren eskubide eta interes legitimoei eragiten dien izaera orokorreko xedapenen kasuan, entzunaldiaren izapidea egin beharko da, eta xedapenaren izaerak hala eskatuta, jendaurreko agerraldia ere egin beharko da.

Zentzu honetan, proiektua jendaurreko agerraldian jartzen da, abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedurari buruzkoak, bere 8. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki; horretarako, nahikoa dela irizten da hogeia egun balioduneko epea, iragarki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Horregatik guztiagatik, eta apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuak, Lan eta Justizia Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duenak, xedatutakoari jarraiki,,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Jendaurreko agerraldian jartzea enpresaburuen elkarteei eta sindikatuari lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko euren jardueretan berezko zaizkien gaietan prestakuntza planak garatzeko helburuarekin ematen diren dirulaguntzen esleipena arautzen duen Dekretuaren proiektua, hogeia egun balioduneko epean, iragarki hau Euskal Autonomia Erkidegoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.- Epealdi horretan, edozein pertsona fisiko edo juridikok, publiko edo pribatuk, Dekretuaren proiektua Vitoria-Gasteizen, Donostia-San Sebastian kalean, 1 zenbakian, kokatuta dagoen Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzan, nahiz Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taulan (www.euskadi.eus) kontsultatu dezake, egoki iritzitako alegazioak egite aldera.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T26VZ-3RP0 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den

ala ez jakin liteke egoitza elektronikoko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

Donostia - San Sebastian, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

Tel. 945 01 93 17 Fax 945 01 94 15 - e-mail Trabajo@euskadi.eus

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T26VZ-3RP0 en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 14an.

Sn. (elektronikoki) Elena Pérez Barredo
LAN ETA GIZARTE SEGURANTZAKO ZUZENDARIA